



❖ SAN JOAN KONPARTSA

Santo Tomasetako zenbaki saritua: 6.216 da

San Joan Konpartsak larunbatean ospatu zuen Santo Tomas Eguna eta bertan errifak saldu zituzten. Jakinarazi dutenez, zenbaki saritua 6.216a da. ||

❖ PLENOA

Arau Subsidiarioak onartu dira, behin behinean, zenbait alegazio kontuan hartuta

Horrez gain, atzo Plenoan onartu ziren Udalaren 3 etxebizitza alokairuan jartzea eta Ongintzako apartamentu tutelatuak martxan jartzeko, ordenantza.

PLENOAN, atzo erabaki zen Arau Subsidiarioen Errebisioaren Testu Bateratuari behin-behineko onarpena ematea, zenbait alegazio kontuan hartu ondoren. Gobernu Taldeak eta Ezker Batuak alde bozkatu zuten eta EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta H1!-ek kontra. Sozialistek azaldu zuten kontra bozkatuko zutela, «alde batetik, arauen errebisioa izan beharrean, arau berri batzuk direlako eta Diputazioak jada onartuak zituen arau batzuk aldatu direlako. Bestetik, Portu-Karabeli dagokionean, lur eremu gehiengo ez urbanizagarri bezala kalifikatu delako eta herrigunearekin haustura eragiteaz gain, aukera galduko delako babestutako etxebizitza asko egiteko. Horrez gain, Florida bermoldatzeaz hitz egiten da, baina aldi berean bertako industria mantenduko

253 alegazio aurkeztu dira eta horietatik %69 ontzat hartu dira.

da eta gure ustez aukera on bat galdu da. Horrez gain, testu bateratu honek dakar aldaketa zirkulazio sisteman eta beste gauzen artean, egingo da irla zentral bat trafiko zati haundi bat auzo desberdinetara bideratuz, lehendik asetuta daudenak eta behar adinako azpiegitura ez dutenak trafiko hori jasateko. Hori dela eta, eta aurkeztu ditugun alegazioak kontutan hartu ez direlako, kontra bozkatuko dugu». H1! eta EAJ-PNV alderdiek ere kontra bozkatuko zutela azaldu zuten, beraien alegazioak, oroko-

rrean, onartu ez direlako.

Gobernu Taldearen izenean, Marian Beitialarrangoitia alkateak azaldu zuen alegazioen portzentai oso altu bat onartu dela eta oso garrantzitsua iruditzen zaiela. 253 alegazio aurkeztu dira eta horietatik %69 ontzat hartu dira. Eta batez ere nabarmendu zuen Floridako kasua, «lortu delako helburu garrantzitsua zena, hau da, tren azpiko pasoa egitea eta trafikoa behar bezala antolatzea hartu beharreko neurriak hartzea Papelera del Norte bota gabe». Eta gai horri dagokionean, azaldu zuen ez datorrela bat alderdi sozialistarekin: konpatibleak diren jarduerak zergatik ez elkarrekin utzi? AMR zonalde horretatik kendu eta beste enpresa batzuk hor utzi daitezke. Uztargariak dira».

3 Udal etxebizitza alokairuan jartzea eta apartamentu tutelatuaren ordenantza, onartuta

Arau Subsidiarioez gain, beste gai batzuk ere landu ziren atzo Plenoan: alde batetik, Udalarenak diren 3 etxebizitza alokairuan jartzea eta horien gestioaren ardura Alokabideri uztea erabaki zen, Gobernu Taldearen, Ezker Batuaren eta Alberdi Sozialistaren aldeko botoekin. EAJ-PNV, H1! eta PP abstenitu egin ziren.

Bestetik, Ongintzaren apartamentu tutelatuak martxan jartzeko, zerbitzua arautzen duen ordenantza onartu zen, aho batez.

Eta horrez gain, onartu ziren Amherrekin hitzarmena, aho batez, eta abenduak 18, Migratzaileen Nazioarteko Egunaren adierazpena, ia aho batez; PP abstenitu egin zen. ||

❖ BERTSOLATA - Hernaniko bertso astea Gabonetan

Gabon eskea Olentzerorekin etzi, Bertso Eskolaren eskutik bigarren aldiz

Bertsolataren barruan, aurten bi aurkezpen nagusi izango dira: 'Ornitorrinkus' lanaren aurkezpena eta Bertso Eskolako Web gunea, DVDa eta material didaktikoaren aurkezpena.

GABONEN barruan, Bertsolata, Hernaniko bertso astea antolatu du aurten ere Bertso Eskolak eta etzi, Gabon eskea egingo dute, bigarren urtez. Arratsaldeko 15:00etan Plazatik abiatu eta Zikuñaga eta Osiñaga auzoetan barrena erronda egingo dute Olen-

tzerekin. Herritarrei parte hartzeko gonbitea luzatu diete.

Bi aurkezpen, datorren astean

Aurten, bi aurkezpen garrantzitsu izango dira Bertsolataren barruan. Alde batetik, abenduaren 28an *Ornitorrinkus*

lanaren aurkezpena izango da, Maialen Lujanbio, Judith Montero eta Xabier Erkiziaren eskutik, 19:00etan Milagrosan. Sarrerak 5 euro balio du. Eta bestetik, abenduaren 30ean, Bertso Eskolako web gunea, DVDa eta material didaktikoaren aurkezpena izango da,

19:00etan Biterin.

Horrez gain ez dira faltako Urte Zaharreko erronda, 18:00etan, Plazatik abiatuta, eta Errege Eguneko bertso saioa, 19:00etan Biterin. Sarrerak 7 euroan daude salgai Aralar eta Tripontzi tabernetan. ||

❖ IPUIN ORDUA

Ipuin kontaketa gaur, Oihana Etxegibelen eskutik

Oihana Etxegibelek ipuinak kontatuko dizkie gaur umeei Liburutegian. Bi saio izango dira: 11:00etan 3-4 urte bitartekoentzat eta 11:30etan 5-7 urtekoentzat. ||

❖ GAZTE TXOKOA

Futbolin Txapelketan izena emateko azken eguna gaur

Gazte Txokoak eta kale hezitzaileek antolatuta Futbolin Txapelketa izango da abenduaren 29an eta izena emateko azken eguna gaur da. Bikoteka hartu behar da parte. ||

◆ PELOTA

Gipuzkoako Txapelketako 3 partidu gaur

Gipuzkoako Txapelketako 3 partidu jokatu dira gaur Hernanin, 19:30etatik aurrera: eskuz alebinetan, Manex Noble/Alde Zaharra; eskuz infantiletan, Iker Loiarte/Intza eta Suhari Rodriguez/Zumaia. Eta bihar, Hernaniko Lauterdiko Txapelketan: Paul Ojuel/Eñaut Esnaola 20:30etan. ||

❖ HERNANIKO KRONIKA

Gabonetako saskien zozketa bihar Biterin

Hernaniko Kronikak, Berriak elkartearrekin elkarlanean, Gabonetako zozketa antolatu du aurten ere eta zozketa bihar izango da 11:00etan Biterin. Hiru saski eta sari berezi bat zozketatuko dira. ||

A B E N D U A N

ROOMBA aspiragailu robot bat zozketatuko dugu ASTERO:



BALANTXAN EROSKETA egiten dutenen artean, eta **KIXKAL** eta **AKEIT** tabernetan **KAFFEA** hartzen dutenen artean

BALANTXA ELEKTROGAILUAK, KIXKAL TABERNAK ETA AKEIT TABERNAK
GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU. ZORIONAK ETA EGUBERRI ON GUZTIQI!

cenor **BALANTXA**
ELEKTROGAILUAK
Nagusia, 17 - ☎ 943 33 20 44

kixkal
taberna
nagusia, 15
hernani

AKEIT
Plaza Berri HERNANI

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Egunez**: Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● **Gauz**: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Negua euri kontuekin hasiko dugu eta edozein momentutan egingo du. Tenperaturak berdin jarraituko du, baina elurraren maila jaisten joango da. Min.9º / Max.13º.
BIHAR Nabarmen hoztuko du eta giro nahasia izango dugu. Zaparradak nagusi izango dira. Elur-kota jaisten joango da, azken orduetan baliteke 700 m-tik behera zuritzea. (euskaime)

Goizean goiz, banatu zen lore gehiena.

Jende dezente inguratu zen larunbatean Erribera-Hernani inbernaderoetara. Lore festa antolatu zuten eta instalazioak ikusi, eta lore banarekin joan ziren herritarrak. Batez ere lehenengo orduan ibili zen mugimendua. Eguerdian, bazkaria egin zuten elkarteko 38 kideek. ||



Karobi elkarteak 10 urte bete ditu. Orain dela 11 urte, lagun talde bat elkartu zen Latsunbeberri eta Marieluts auzoetan elkarte bat sortzeko asmoz. Idea auzotarren artean zabaldu zuten eta elkarte sortzea erabaki zuten. Ordutik 10 urte pasa dira eta urte guzti hauetan antolatu dituzte besteak beste, auzoko festak Iturritxo auzo elkartearekin, Garagardo Festa eta barrikotea; izan ere, elkarteak beti izan du helburu, bizia eta aktiboa izatea. Hasieratik, 80 bikote dira bazkide. ||

Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Amonarraiz jauna, beste behin ere lotsagarri!!
Amonarraiz jaunaren haserrealdia eta umekeriak ez dirudite zinegotzi batentzat egokiak direnik.
Nire aldetik bakarrik esan Amonarraiz jaunak arazo

handi bat duela eta zera da: oso nabarmena dela bere kas-ketaren zergatia. Bere idatzian Amonarraiz jaunak argi uzten du Irrigoenea etxearen iraupena bost axola zitzaioela. Amonarraiz jaunak nahi zuten bakarra sesioa eta liska-

rra piztea zen. Amonarraiz jaunak Irrigoenea etxearekin demagogia eta politikeri merkea egitea nahi zuen. Politika estilo hori ez dut batere gustoko.

Mikel Arrieta Iraola

IRAGARKI MERKEAK

Emakume euskaldun bat behar dugu goizez, haurrak jelki arazi, gosaria eman eta eskolara eramateko. Deitu: 661 679 700
Etxebizitza alokagai Erenotzun, baserri batean. Toki lasaia eta eguzkitsua. 80m2 (600€). Deitu: 636 627 462.
Pisu bila nabil alokairuan, Hernanin. 2 logela eta berogailua (ingenieroa: sol-bentzia eta seriotasuna). Deitu: 600 609 754.
Garaje itxia alokagai, Zinkoenean. Deitu 677 513 257
Kapritxozko etxea salgai Santa Barbara auzoan. 3 logela, 3 komun, saloi haundia, sukaldia. Behean soziedadea eta ganbara logela bihurtuta, komunarekin. Garajea (3 kobxe).Prezio negoziagarria eta erreztasunak ordaintzetan. Deitu: 629 682 827.
Audi TT FSI salgai (2000cc, 200zaldi, 2007urtekoa). Oso egoera onean, beti garajejan. 26.500€.

Deitu: 658 058 330.
ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Enara Goikoetxea. Terapia energetikoak, Kristaloterapia, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)
YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzalea. Atzietan 2, behean. Tel. 943 55 32 78.
Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Bikain
OKINDEGI ETA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain
Eguberri On!

Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089
Elkano 12 - Tel.: 943 553142
Orkolaga 19 - Tel.: 676 78 60 93
20120 Hernani

HERNANI ENGLISH
HIZKUNTZAK
(GURE INGELESETXEA)

Abenduaren 23an, osteguna, hasiko ditugu gabonetako oporrak. Eta urtarrilaren 7an, ostirala, hasiko dugu ikastaroen 2, hiruhilekoa

Eguberri On guztioi!!

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08
Kale Nagusia 41 - 1

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **MARIA PILAR LOYARTE ERROIZARENA**
ANDREA
(Cristino Albisturen alarguna)
Atzo hil zen Hernanin, 84 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Semea: Javier; anai-arrebak: Silvina eta Juan Iriarte; ilobak, lehengusuak eta gainetako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, ASTEAZKENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2010eko abenduaren 22an

Helbidea: Iturregui, 4 - 1 - A.
Oharra: Gorputza HERNANIKO ORBEGOZO FUNERARIA TANATORIOAN egongo da gaur, asteazkena, goizeko 10:00ak arte.

† **Mª KRUZ ERRAZKIN URDANGARIN**
ANDREA
Atzo hil zen, 48 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Bere senarra: Luis Usarralde; seme-alabak: Iñaki eta Ane; gurasoak: Inaxio eta Xele; ezkon gurasoak: Eugenio (†) eta Dorotea (†); anai-arrebak: Amaia eta Juanjo, Marian eta Jesus, Joxe Migel eta Begoña, Mª Luisa (†) eta Martin, Karmen eta Patxi, Margari eta Felix, Arantxa eta Joxe, eta Rexu eta Antxon; ilobak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, ASTEAZKENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2010eko abenduaren 22an

Helbidea: Zumea, 34-4.A
OHARRA: Gorputza ERREKALDE AUZOKO VASCONGADA TANATORIOAN egongo da gaur, goizeko 09:00ak arte.

MARI KRUZ ERRAZKIN URDANGARIN

*Bihotzean min dut, min etsia,
negar ixila darion mina.
Lagun bat genuen, Mari Kruz,
gaur, tamalez, aldegin.*

OSIÑAGA AUZOKO LAGUNAK

MARI KRUZ ERRAZKIN URDANGARIN

*Marian eta bere familiari
besarkada bat*

LAGUNEN PARTETIK

Hernanin, 2010eko abenduaren 22an

VI. eta XI. URTEURRENA
Antonio Odriozola Oiarzabal
2005eko urtarrilaren 31n hil zen, 88 urterekin.
eta
Xixili Jauregi Iraola
1999ko abenduaren 22an hil zen, 69 urterekin.

NAHIZ ETA URRUN JOAN
MUNDU HONETATIK
EZ DUZUE ALDE EGIN
GURE BIHOTZETIK.

Hernanin, 2010eko abenduaren 22an